Izenburua: **Profilak (Mugetan barrena)**

Egilea: **Amaia Iturbide**

Bilduma: **Profilak, 51**

ISBN: **978-84-9109-988-8**

Salneurria: **14,00 €**

.

Poema liburu honetan mugak eta ertzak sarritan ikus ditzakegu leku estrategikoak eta erabakigarriak baitira. Mugaren eta ertzaren kontzeptuak direla medio intuizioa eta pertzepzioa zorroztu eta beste eremuetaraino joan daiteke esperimentazioen eskutik, modu horretan aurkikuntzak jadetsiz. Ez alferrik ingelesez “bound” hitzak bai “muga”, bai “jauzia” esanahiak biltzen ditu.

Aurkezpen honi “Mundua ikusteko bestelako modu batzuk” izenburua jarri diot, besteak beste, planteamendu ezohikoak daudelako, gauza apurtuak edo zerbait ments dutenak (hor dago, adibidez, manikia) eta akastunak, asimetrikoak edota inperfekzio zein irregulartasuna aintzat hartzen dituztenak (esate baterako, lorategi japoniarra). Oro har zalantzaren tokian ipini naiz, non galderak eta sortzeko posibilitateak ugaltzen baitira. Bidenabar hau guztia gizakiak dauzkan mugak onartu eta bizitzari buruzko ikuspegi gizatiarragoa emateko ahalegina ere bada.

Poema liburu honek bost atal dauzka: “Manikiaren bakardadetik”, “Bizipen-laginak”, “Ikasketa-prozesuez”, “Behatokietan zehar” eta “Planteamendu mugakideekin”. Gai desberdinak landu ditut nagusienetariko bat gizakiaren hauskortasuna delarik.

“Manikiaren bakardadetik” lehenengo atala manikiaren sinboloaren inguruan antolatuta dago, pentsamolde primitiboaren arabera arimaren irudia da, hortik bere zeregin magikoa, giza irudiaren antza daukaten txorimalo eta panpinekin gertatzen den bezalaxe. Manikia modernitate eta postmodernitatearen sinboloa ere bada (eta orduan jarrera marjinatu eta alternatiboak sinbolizatu ahal ditu edo, bestela esanda, ahulen indarra). Sinbologiarekin jarraituz gero, Jean Chevalierrek eta Alain Gheerbrantek Sinboloen hiztegia-n manikia materia galkorrarekin lotzen dute. Horren ariora goi-mailako joskintza arloko modeloen desfilea aipatzen dute, non ikusleek euren burua manikiek bizia ematen dieten jantzietan ikusten baitute proiektatuta.

Sail horretan manikia giza eskalarekin parekatu dut, bere burua egiten ari den gizakiarekin. Objektuaren eta subjektuaren arteko harremanetan sakontzearekin batera postmodernismoari begiratu diot Vattimo eta Zygmunt Bauman oroituz eta existentzialismoaz aritu naiz Lacan eta Jaspers aintzat hartuta. Horretarako kontzeptu batzuk erabili ditut. Yukio Mishima idazlearen eskutik kitsch estiloaz ere jardun dut, zeinak bere alderdi erakargarria baitauka.

Atal horretako poemetatik adibide batzuk eman ahal dira. Manikiaren azalpen batzuk II-n pertsona irakur daiteke. “Pertsona” Erroman antzerki aktorearen maskarari zeritzon.

Pendrivean irakur dakizkiokeenak II-n Vattimo agertzen da, pentsamendu ahularen egilea. Haren arabera aipatu pentsamendua pentsamendu sendo, metafisiko eta betiko egien kontrajarreran dago, ardura existentzialik ez daukan nolabaiteko nihilismorantz doa eta postmodernitatearen zein multimediaren inguruko giroak bereganatzen ditu.

Zenbait aitorpen manikiari I izeneko poeman Borderline ("lerro banatzailea" edo "muga") kontzeptua azaltzen da, objektu idealarekiko (edo desira-objektuarekiko) erreferentzia dago, likidotasunaz zerbait irakur daiteke eta Jaspersen filosofiari hurbildu naiz Existenz kontzeptuaren bitartez. Borderline kontzeptua eta objektu idealarekikoa (edo desira-objektuarekikoa) Lacan psikiatra eta psikoanalistaren hiztegiari dagozkio, gizakiaren mugez, nahiez (pultsioez) eta porrotez diharduen egileari. Likidotasunaren kontzeptua modernitatearekin uztartuta dago eta horretaz luze eta xehetasun osoz aritu da Zygmunt Bauman soziologo poloniarra, modernitateak identitateari begiratu eta azkenean jasotzen dituen hauskortasun eta urradura sentsazioak gogoraraziz. Jaspers filosofo eta psikiatra existentzialistaren iritziz, filosofia zientziaren datuak kontutan hartuta harantzago joan behar da, askatasun eta transzendentziarantz. Gizakiak bere existentzia konkretutik, bere burua egiten ari den egoeretatik eta duen historia propiotik askatasunarekin eta era berean ezereza den zerumugarekin aurrez aurre topo egiten du. Kinka horretan dihardu eta jarrera erradikal horretan mugako egoerak giltzarriak izango ditu askatasuna eta transzendentzia erdiesteko orduan (horra hor, Existenz, hain zuzen). Karl Jaspersengan erru-sentimenduak daukan pisua ere seinalatu behar da.

Zenbait aitorpen manikiari II poeman “kitsch” hitza agertzen da, alemaneraz “birmoldatutako purtzilkeria” esan nahi duena. Horrekin batera Yukio Mishimarekin topo egiten dugu. Idazle japoniar horrek soldadu modernoa izan arren, aspaldiko japoniar ohiturei jarraituta harakiria eginez bere burua hil zuen. Mundu tradizionala eta modernoa elkartzea, bi mutur horiek jostea, eta gainera mendebaldeko elementuak ekialdekoekin nahastea, Mishimak egin zuen bezala, nolabaiteko jarrera kitsch gisara ikusi ahal da.

Ni ere soldadura bigunen lantegi batean deritzon poeman likidoaren kontzeptua dago, Zenbait aitorpen manikiari I-ean ere irakur daiteke, baina beste zentzu batez, transbertsalitatearen sinonimo gisara, hain zuzen.

"Manikiaren bakardadetik" sail horretan gaur egungo munduan ohikoak diren gaiei heldu diet, adibidez, postmodernitateari dagozkionak (transgeneroa edo distopia). Agian horregatik bertso horiek kontrajarpenez tartekaturik daude. Horrela zuhaitza mundu informatiko eta digitalean txertatu dut esparru horri beste bizitasunik eta ikuspegirik ematearren. Manikiak zuhaitzarekin ez ezik, txoriarekin ere harremanak dauzka. Bestaldetik, manikia informatikaz inguraturik egotean, giro horrek poemak balizkotasun eta iragankortasun kutsuaz blaitzen ditu.

“Bizipen-laginak” deritzon bigarren sailak maketa itxura dauka aztarnari begiratzen diolako, oroimenean geratzen denari. Sail horretan zenbait esperientzia latzek (nazismoak, Guda Zibilak eta baita egunerokotasunak ere) utzitako arrasto eta hondarrak aurkituko ditugu. Airera bidean poeman kordel-orrien eta itsu-erromantzeen ondoan bertso-paperak aipatu ditut. Izan ere, nahiz eta lehenengo biak XV. eta XVI. mendeetan gailendu eta euskal literaturari beren-beregi dagozkion bertso paperak XIX. mendean eta XX. mende hasieran gauzatu ziren, guztiak bereziki ahozko literaturaren generoaren barruan daude, herrikoiak dira eta han-hemenka banatzen ziren (kalean, azoketan, jaietan). Dalíren liburu-maleta honetan deritzon poema Dalíren jenialtasuna agerian ipini nahi izan dut, surrealismoaren eta metafisikaren bitartez muga guztiak gainditzen baititu.

“Ikasketa-prozesuez” hirugarren sailean gai intimistei eutsi diet, inguratzen nauten gauzei (neguko sandaliak, kuku-erlojua, etxe barruko landarea). Horretaz gain, arteari buruzko poemak zein ikuspegi sozialekoak daude.

Neguko sandaliak poeman “inorena ez den lurralderantz” irakur daiteke. Grekoz “utopia” hitzak “inon ez dagoen tokia” esan nahi du.

Diseinuaz hausnartzen poema dela-eta, etimologiara joko dut. "Diseinua" italierazko "disegno" hitzetik dator, zeinak "marrazkia" esan nahi baitu eta horren ondorioz baita "etortzeko dagoena edo proiektua". Horri guztiari lotuta seinalatu behar da diseinuek profilak markatzen dituztela. Bestaldetik, diseinuak artearen barruan baliagarritasunaren kontzeptua indartzen du, modu horretan artea eskuragarriago bihurtuz. Diseinu kontuak liburuan zehar irakur daitezke.

Zenbait antzerki-ohar poeman agertutako Mugarte eta Mugalde lekuak Arestiren Tobera deritzon komedian daudenak dira. Antzerkia kontzientziak aldatzeko dagoela oroitarazten digu Arestik, beraz hor ere nolabaiteko mugekin topo egiten dugu.

“Behatokietan zehar” laugarren sailean zenbait perspektibari atxiki natzaie. Zine, argazki, pintura eta beste adierazpide artistiko batzuez aritu naiz, pertsonaiak euren ofizioetan daude eta baita objektuak, lekuak eta paisaiak ere.

Proposamen primitiboez izenburuko poeman, adibidez, primitibismoa interesgarria dela ohartarazi nahi izan dut bizitzaz eta munduaz daukan ikuspegi sakratuagatik batik bat. Darion trauskiltasun ukitua estimagarria da gordetzen duen benetakotasunagatik. Gainera primitibismoak mugarriak zedarritzeko dohaina du, bide ertz egingarria da berea.

Beilatokiko langilea-n mitxoleta dago mindurarekin identifikatu eta oroimenaren sinboloa delako.

“Planteamendu mugakideekin” deritzon bosgarren eta azken sailean, non batzuetan mistikari ere heltzen diodan, mugen arteko elkarrizketaz aritu naiz. Hor daude mistikotzat har daitezkeen Mark Rothko edo Cristino de Vera margolariak, adibidez. Mistikaren haritik ere kontrajarpenak dauzkaten zenbait sinbolo topatu ditzakegu: kristala (gogorra izan arren hautsiz gero xehatuta geratzen dena) edo argizaria (desegindakoan gogortzeko joera daukana).

Samuel Beckett izeneko poema idazteko bere antzerkia ez ezik (atal ezagunena duena), narrazioak eta poemak ere kontuan eduki ditut.

Bestaldetik eta poema liburu osoari begira, 2020ko otsail edo martxo aldera hasi zen pandemia garaia nabari da, adibidez, Konfinamendua eta Balkoiak (Aurretiko bista) deritzen poemetan. Balkoiak denboraldi horietan nabarmenduta geratu ziren etxeratze aginduen ondorioz, han egotea kalera irteteko modu bat zen-eta.

Jadanik aipatutako sinboloez gain, ortzadarra ere badago, betiereko itzuleraren filosofiari men eginez erritmo ziklikoaren arabera mugitzen dena, amaieratik beti hasierara baitoa etengabe. Ortzadarrarekin batera automobila agertzen da, bidaia errealaren zein iniziatikoaren sinboloa. Zerumuga ametsaren, helburuaren edo topagunearen sinonimo modura dago, labirintoa enigmaren adierazle gisara. Zuhaitzak hainbat esangura dauzka bere baitan, baina nagusiki bizitzaraino

garamatza, horregatik hazten delako goranzko sinboloen artean aurki daiteke, modu horretan bertikaltasuna azpimarratuz. Sinboloen artean horra hor ere igerilekuarena, zeinak amets zedarritua adierazten baitu.

Ikusi izan den bezala, kontzeptuak landu ditut. Liburuaren gai orokorraren ildotik mugatasunarena zein mugagabetasunarena nabarmentzen dira hainbat bertsotan.

Irudigintzari lehentasuna eman diot, horregatik liburu hau bisualtasun handikoa dela uste dut. Surrealismoa liburuan zehar dago. Irudi espresionistekin ere jardun dut, adibidez, Gargolaren agerpena poeman. Irudi espresionistak dauzkaten poemetan sublimearen kontzeptua buruan eduki dut une batzuetan.

Liburuan ironia ez da falta, bizitzeko edo bizirik irauteko beharrezkoa eta modernitate zein postmodernitate gaietarako egokia. Hainbat adibide daude liburuan, esate baterako, manikiaz dihardudanean edo Terrakota, Ilargiaren hozkekin edo Ilusio mugarriak izeneko poemetan. Fotogramen bitartez deritzonean "Onsa hilceco bidia" irakur daiteke, Tartas idazle zuberotarraren prosazko lan aszetiko baten izenburua, baina ironiaz erabilita.

Joera estetiko batzuk ere azpimarratuta utzi nahi izan ditut esplizituki, adibidez, Txori sinbolistaren atzetik eta azken txori espresionistaz deritzon poeman edota Poema surrealista (Ultimatum gisara) izenekoan.

Figura erretorikoen artean bereziki metafora erabili dut haren bitartez hitzen esanahien eta adieren posibilitateekin jolastuz. Errekurtso estilistikoei dagokienean, kontrasteak erabili ditut, arlo desberdinak bizikide ipintzen aritu naiz, besteak beste, mundua konplexua dela adieraziz. Horrela lore naturalekin batera lore artifizialak (hain estetikoak direnak) aukeratu ditut.

Eta ez naiz ahaztu etikaz, niregan sarritan estetikarekin bat eginda doana, Poema surrealista (Ultimatum gisara) lekuko.

Amaia Iturbide

Donostia, 2025eko martxoak 18

Amaia Iturbide (Bilbo, 1961). Euskal Filologia ikasketak egina da Deustuko Unibertsitatean. Poema liburu hauek argitaratu ditu: *Eskaileraren bi aldeetan* (1986), *Itzulbidea* (1992), *Gelak eta zelaiak* (1994), *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak / Flores mudas y las bodas de la saliva* (2006), *Labirintoaren orduak* (2008), *Eszenatokietako aztarnak hasten direnean* (2011) eta *Dorrearen eta penduluaren arteko ituna* (2016). Ipuin liburuak ere idatzi ditu: *Bidaiarik luzeenak* (2005), *Kartografien eta mikrobio narratiboen artean* (2013) eta *Urrutiko estanpetan* (2019); eta eleberri labur bat, poemak eta margoak dauzkan liburua: *Ispiluen arteko zirriborroak* (2016). Honetaz gain, saiakera hauek dauzka argitaratuta: *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza* (2000), *"Mimodramak eta ikonoak" gidari, estetikan barrena* (2002), *Ikuspuntuak -artikulu bilduma-* (2014), *Entseiukarrean: artea & poesia & literatura* (2014), *Idazlan berreskuratuak* (2019) eta *Guneak eta ardatzak* (2019).